

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen Dekretua, 2025eko otsailaren 10ekoa, udal sozietateak gobernu-arloei atxikitzeko dekretua aldatzeko**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4 artikuluko k) letran xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio udal administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura finkatzea, udal antolakuntzaren alorrean osoko bilkurari dagozkion esumenak salbu, lege horretako 123.1.c) artikularekin bat etorriz. Erregulazio hori bera jasotzen da Vitoria-Gasteizko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 4.1 artikuluan.

Horren haritik, 2023ko ekainaren 22ko Alkate Dekretuaren bidez zehaztu zen Vitoria-Gasteizko Udalaren administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura, Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudiak jasotako antolaketa funtsezko mailen arabera. Dekretu horretan, lau gobernu-arlo hauek ezartzen dira:

- Hiri Ereduaren, Ingurumenaren eta Ekonomia Sustapenaren Arloa.
- Alkatearen, Ogasunaren, Giza Baliabideen, Kirolaren eta Osasunaren Arloa.
- Zaintzen eta Herritarrentzako Zerbitzuen Arloa.
- Administrazioa Modernizatzeko eta Espazio Publikoa Hobetzeko Arloa.

Arlo bakoitzari zuzendaritza nagusiak atxiki zaizkio, sailetan multzokatuta, bai eta udal erakunde publikoak ere (Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudiaren 58.2 artikulua).

2023ko uztailaren 6ko Alkatearen Dekretuaren bidez, udal-entresak atxiki egin ziren —Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak SA (TUVISA), Vitoria-Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) eta 21 Zabalgunea SA— 2023ko ekainaren 22ko Alkatearen Dekretuan ezarritako gobernu-arloren batera.

Udal-administrazio exekutiboaren antolaketak eta egitura aldatu ondoren, Alkatearen 2025eko urtarrilaren 13ko Dekretuaren bidez —zeinaren bidez Trafiko Zerbitzua Espazio Publikoaren eta Auzoen Sailean sartu baitzen—, komenigarritzat jo da Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak udal-entresak atxikita dagoen gobernu-arloa aldatzea —Zaintzen eta Herritarrentzako Zerbitzuen Arloa—, Alkatearen 2023ko uztailaren 6ko Dekretuaren arabera, eta Administrazioa Modernizatzeko eta Espazio Publikoa Hobetzeko Arloari atxikitzea.

Horrenbestez, eta azaldutakoa eta eskumenen araubidea kontuan izanik, honako hau

Xedatu dut

Lehenengoa. "Vitoria-Gasteizko Hiri Garraioak, SA (TUVISA)" udalaren merkataritza-sozietatea atxikitzea Administrazioa Modernizatzeko eta Espazio Publikoa Hobetzeko Arloari, ondorioz gabe utziz Alkatearen 2023ko uztailaren 6ko Dekretuan sozietate horrentzako aurreikusitako atxikipena, eta aldaketarik eragin gabe udalaren beste bi merkataritza-sozietateen —"Vitoria-Gasteizko Udal

Urak SA (AMVISA) eta "Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkartea, 21 Zabalgunea SA" — gobernu-  
arloan atxikipenetan, aipatutako Alkatearen Dekretuan jasotakoak.

Bigarrena. Sinatzen den egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 10ean

*Alkatea*

*MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA*